

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EAE-KO 10.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALEK INGURUMEN GAJETAN GAUZATUTAKO EKINTZEN GAINEKO FISKALIZAZIO-LANARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 27an EAEko 10.000 biztanletik gorako udalek 2017ko ekitaldian ingurumen gaietan gauzatutako ekintzen gaineko fiskalizazio-txostena. Lan hau Estatuko gainerako Kanpo Kontrolerako Organoekin eta Kontuen Epaitegiarekin lankidetzan egin da.

Txostenak aztertzen ditu udalek ingurumenaren plangintza gaietan gauzatutako ekintzak (barne antolakuntza, ingurumen-helburuak dituzten udal taldeetara atxikitzea, Tokiko Agenda 21en ezarpen-maila) eta ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatuen ezarpena, besteak beste. Halaber, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalek airearen, argiaren eta soinuaren kutsadurari eta HHSen gaikako bilketari dagokionez gauzatu dituzten berariazko jarduerak aztertu dira .

Txostenak Udalsarea 2030, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen lana azpimarratu du, zeinaren helburua baita udalerriei garapen jasangarriko politika publikoak ezartzen laguntzea. Atxikitako udalez gain, sareko kide dira Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, URA agentzia, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak eta Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako sozietate publikoa, Sareko idazkaritza lanak egiten dituen.